

## SECCION AMENA



### ¡EZ DA BA ALAJAÑA!



Picharreko botilla  
 besuan zubela  
 presaka kalietan  
 zijuan Mikela.  
 Amabiyak zintzilik  
 lanian senarra  
 bañan otordubetan  
 bidian azkarra.  
 Edertasunen gañez  
 Mikela gaztia,  
 ikusteko zan arrek  
 zeraman aidia.  
 Nola Pranchisku zegon  
 kalia garbitzen  
 asi ziran alkarri  
 galde t' erantzuten.  
 —Esan nazu Pranchisku  
 ¿emen goi aldian  
 sagardorik onena  
 nun da?  
 —Kupelian.  
 —¡Arrayia! ¿ta nola  
 zera zu arkitzen  
 orrenbeste jakin ta  
 kalia garbitzen?

MARCELINO SOROA.

